

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2009ko ekainaren 10ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu duela:

7.- BOLUMEN HANDIKO HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Bolumen Handiko hondakinen bilketa zerbitzua behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bolumen Handikoen batze, berrerabilera edota birziklapenerako zerbitzua lehen aldiz 2001ko urtarrilaren 15ean kontratatu zan eta 2005eko urtarrilean bukatu zan. Ondoren, zerbitzu hau barriko lizitaziora atara zan eta zerbitzu kontratua 2009ko maiatzaren 31an amaitu zan.

Bigarrena: Beraz, zerbitzu hau barriko kontrataziora atara behar zan, barriko beprozedura negoziatua erabiliz.

Hirugarrena: 2009ko maiatzaren 8an kontratua bideratzeko baldintza tekniko eta administratiboak Urigintza, Obra eta Ingurumen Sailean onetsi ziran eta 2009ko maiatzaren 13an Tokiko Gobernu Batzarrak onartu ebazan.

Laugarrena: 3 enpresari gonbiteak bidali jakez:

1. CESPA, S.A.
2. REZIKLETA, S. COOP.
3. URAZCA, S.A.

Argudioak

Lehenengoa: Zerbitzu honetan parte hartzeko gonbidatutako parte hartziale guztiak bere eskaintzak aurkeztu ebezan. Euren proposamenak aurkezteko azken eguna maiatzak 25a izan da.

Bigarrena: Aurkeztutako enpresek zerbitzu hau epe barruan gauzatzeko eta administrazio baldintza tekniko eta administratiboetan adierazitakoaren arabera, gauzatzeko ahalmena daukatela adierazi dabe.

Hirugarrena: Jasotako proposamenak aztertu ondoren, hona hemen lortutako puntuazioa adjudikazio irizpideak kontutan hartuz:

1. Proposamen ekonomikoa (0-40 puntu)

CESPA. S.A.	REZIKLETA S. COOP.	URAZCA, S.A.
11,38 (39.899,23 €)	14,53 (39.377,05 €)	23,43 (37.900,17 €)

Sistema de valoración: fórmula cálculo de baja temeraria y ponderación

2. Proposatutako sistemeagaz zenbaterainoko konpromisoa (0-20 puntu)

CESPA. S.A.	REZIKLETA S. COOP.	URAZCA, S.A.
12 1 peón-conductor para recogida no suficiente Cambio día recogida: jueves Recogida objetos sin aviso	18 Prioridad a reciclaje (objetivos Plan Residuos Bizkaia) 2 equipos trabajo a la vez (1 vehículo y 2 operarios/equipo) Recogida objetos sin aviso Compromiso entorno limpio	14 Propuesta idéntica del pliego Recogida objetos sin aviso Compromiso entorno limpio

3. Zerbitzua beteteko, proposatutako egitamu teknikoaren kalidadea: (0-20 puntu)

CESPA. S.A.	REZIKLETA S. COOP.	URAZCA, S.A.
9 Algunos aspectos no parecen bien planteados (medios recogida, sistema aviso, modelos partes, gestión ropa, asesoría subvenciones...)	20 Descripción exhaustiva (rutas detalladas, sistema avisos, partes a entregar, residuos admitidos/no, legislación a cumplir, gestión RAEE's...)	12 Parte propuesta en euskera Información adicional sobre tratamiento final

4. Baldintza teknikoen agiriari buruzko hobakuntzak. (0-20 puntu)

CESPA. S.A.	REZIKLETA S. COOP.	URAZCA, S.A.
14 Recogida ocasional depósitos incontrolados voluminosos Servicio recogida domiciliaria, aparte Recogida ropa 5 contenedor	16 Recogida gratuita juguetes, libros, etc. en campañas ropa Instalación piloto 4 conten. ropa 4 meses 50% coste Visitas guiadas para colegios Bermeo a mercado Koopera, etc. 50 €/visita	16 Teléfono gratuito (línea 900) avisos Administrativo y encargado sin coste Servicio gratuito recogida domiciliaria Recogida RP en barrios (Garbigune móvil), aparte Recogida restos jardinería particulares, aparte Recogida aceite usado, aparte

GUZTIRA: **CESPA:** **46,38**
REZIKLETA: **68,53**
URAZCA: **65,43**

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Udaleko kontratua **REZIKLETA, S. COOP.** enpreseari esleitzea. Kontratuaren prezio osoa 36.800,33 € + 2.576,72 € BEZ = **39.377,05 € urte beterako** izango da.

BIGARRENA: Enpresa esleituari, aitatutako esleipen horren indarrez, segidan adierazotzen diran jarduketak burutu beharko dauzala jakinarazotea:

Behin-behineko esleipenaren erabagia web orrialdean edo BAOn publikatu eta biharamunetik zenbatzen hasita 15 egun balioduneko epean, behin-behineko esleipenerako proposatuta dagoen lehiatzaleak honako hauek egin beharko dauz:

- a) Esleipendunak behin betiko bermea sartu beharko dau Udaleko Diruzaintzan, hau da, esleipen prezioaren % 5, BEZ kanpo. Hau da, 1.840 €.

- b) Dokumentazio orokorraren artean, agiriren bat aurkeztu ez bada, hori aurkeztu.
- c) Aurreko epea igarota, behin betiko esleipena egingo da, hori web orrialdean publikatuko delarik.
- d) Azkenik, administrazio honen bulegoetara eterri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Kontratua 10 egun balioduneko epean formalizatuko da, behin betiko esleipena jakinarazoten den eguneko biharamunetik zenbatzen hasita.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deutsut, behin betiko onespenaren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko ekainaren 11n.

ONETSIA
ALKATEA